



irakaslea
errotu
zen eguna

eta

bihurrien
istorioak
neska-mutil
zintzoentzako

CHRISTOPHER MILNE

Itzulpena:
Regina Larrucea

Ilustrazioa:
Simon Swingler

desclée

edukjialk

- Irakaslea erotu zen eguna.....01
- Bakarti izeneko nagia.....12
- Iluntasuna atsegin zuten neskak.....24
- Clive baldarra.....34
- Mundua gobernatu zuen neska.....47
- Izarretara hegan joan zen mutila.....58
- Mendeko pijama festarik onena.....76

irakaslea errotu zen eguna



Badakizue eskola guztietan beti izaten dela ume gaizto eta aldrebezez beteta dagoela ematen duen gelaren bat? Guztiak pilatuta dituena?

Horixe zen nire klasea, 5A.

A, ALDREBES hutsak ginelako.

Gutako batzuk munstro hutsak ginen.

—Gaiztoak —esan zuen amak—. Bereziki Justin Payne hori. Ez da sekula itzuliko etxe honetara. Entzun duzu?



Zure anaia txikia ez da sekula izango lehen bezalakoa. Bai polita armiarmek goxoki zaporea dutela esatea! Eta, gainera, bere belarriak hegan egiteko bezain handiak zirela pentsarazi zion. Eta teilatutik salto egin izan balu zer?

Ez dakit zergatik zeuden hainbeste ume maltzur elkarrekin. Kasualitate hutsa ematen zuen. Ume bat maltzurrago bihurtzen bazen, guztiok bilakatzen ginen gaiztoago. Elkarri irabazteko txandakatzen ginela ematen zirudien.

Beste arrazoi bat, beharbada, kluba izango zen. **Gaiztoen Kluba** Justin Paynekek sortu zuen. Gaiztoen Klubean sartzea zaila zen. Oso zaila. Eta, ez dakit zergatik, hobe zen horrexegatik. Gaiztoen Klubeko kide izatea munduko gauzarik garrantzitsuena bilakatu zen.

“Ikaskideen presioa” esaten zion aitak. Beno, baina batzuetan pentsatzen dut aita ez zela ezta



bere ipurdia eta buruko soilgunea bereizteko gai ere.

Esan bezala, Gaiztoen Klubean sartzea ez zen batere erraza. Badakizu zer egin behar genuen klubera sartzeko? **Sarrera probak.**

Hasteko, bizirik zegoen bare bat mastekatu behar genuen. Gero, hustubide batetik edan behar genuen (baina hustubidea aukera genezakeen, behintzat). Ondoren, Barton «Ipurdi Handia» bizkarrean eraman behar genuen errugbi zelaiari bi buelta ematen genizkiola. Eta, azkenik, arropa guztiak erantzi behar genituen, oin baten gainean oreka mantendu eta irakaslearen etxearen aurretik saltoka pasa behar genuen oilo hotsak egiten.

Uste dut gure irakasle gizajoa aipatu beharko nukeela, Glover jauna. Neurri batean irakaslearengatik ginen-eta hain barrabasak.



Korrok eginez esan zure izena
zerrenda pasatzen dutenean



Marmeladaz bete
ordenagailuaren disko-irakurgailua

Ikasgelako leihoaren kontra
kaka bola bat bota

Hildako igel bat ikaskide
baten janari-kutxan jarri

Geurea egiten uzten zigun. Beti, egia esan. Nahi izan balu, gelatik kalera gintzakeen, edo eskolatik. Baina beti esaten zigun bere arazoa ginela eta bera arduratuko zela gutaz.

—Nire erantzukizuna —esaten zuen.

Horregatik, batzuetan pena ematen zigun arren, bagenekien ez genuela sekula arazorik izango. Gurasoek ezer ez bazekiten, guri bost! Noski, eskolan zigortu egiten gintuzten. Esate baterako, esaldiak idaztera behartzen gintuzten eta abar, baina nork hartzen zuen esaldiak idazteko lana? Nik ez.

Beraz, gure klase osoak beste edozein klasek baino ergelkeria gehiago egin ohi zituen. Beti oihuka, inoiz ere ez genituen lanak egiten, beti aritzen ginen elkarri bromak egiten eta elkar gogaitzen.